

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Apirilaren 16ko 152/2020, ebazpenaren laburpena, beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko dirulaguntzen deialdia

BDNS (Identif.): 503675

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira, gutxienez, urte bete, Barrundian erroldatutako pertsona guztiak, baldin eta beste herrialde batzuetako umeak aldi baterako hartzen badituzte, haien gizarte, osasun egoera, eta bizi kalitatea hobetze aldera.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Aldingabeak aldibaterako hartzeagatik dagozkien gastuak zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 27an egindako batzarrean, beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko dirulaguntzak araupetuko dituzten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 500,00 euro.

Aurrekontu partida: 230.481.013.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 27a

Alkate-lehendakaria
IGOR MEDINA ISASA